

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Edozein negoziotarako bezeroak ezinbestekoak dira, haiek gabe ezinbaitu enpresa batek luzaro iraun. . Horietako bakoitzak ezaugarri desberdineko bezero motak izan ditzake. Gure egitasmoaren bezeroek ez dute adinik ezta itxura espezifikorik izango. Aplikazioa **guztionez** zabalik egongo da, baina batez ere, **nerabeei zuzenduriko aplikazioa** izango dela uste dugu

Gaur egungo egoera kontuan hartuta, nerabeek nahasmen mental gehiago dauzkagu; ikasketengatik, familiengatik, lagunengatik, ... Azkenean, gazteok gure bizitzan esperientzia gutxiago izan ditugu, eta horregatik, baliabide gutxiago dauzkagu emozioak kudeatzeko. Hau da, pertsona heldu batek bizipen gehiago bizi izan dituenek, horrek, arazoen kudeaketa hobeto bat ahalbidetzen dio. Horregatik, uste dugu, **gure bezero potentzialak, nerabeak** izango direla.

Baina, bezero gehienak gazteak izan arren, helduek ere, gure aplikazioa erabil dezakete inolako arazorik gabe. Denok dauzkagulako zailtasunak gure emozioak eta egoera gogorak kudeatzeko. Horregatik, aplikazio honen bitartez, pertsona horiek lagundu nahi ditugu egoera horietan daudenean, psikologoak eta adituak eskainiz eta beste hainbat baliabide eskainiz

Gure enpresa **dibertsifikatutako merkatua** izango da, bezero bakoitzak bere arazo pertsonalak izango duelako, eta baliabide ezberdinak behar izango dituelako. Horregatik, bakoitzari zerbitzu pertsonalizatua eskainiko diogu.

Psikiatrak eta psikologoak, arazo edo gaixotasun desberdinetan espezializatuta egongo dira, zerbitzu hobeto eskaintzeko, eta zure beharren arabera bat edo beste esleituko zaizu. Beraz, aplikazioan sartzeko momentuan test bat bete beharko dute, eta emaitza horien arabera, psikologo bat egokituko zaie. Ondoren, bezeroak izendatutako psikologoarekin hitz egiten eta nahi dituzten kontsultak egin ahalko dituzte.

Hala eta guztiz ere, **merkatu masiboaren** ezaugarri batzuk izango ditugu. Gure bezeroek, beraien artean desberdintasunak izan arren, hainbat ezaugarri komun izango dituzte. Hona hemen gure bezeroek izan ditzaketen ezaugarri ezberdinak:

KOMUNEKO EZAUGARRIAK

- Desoreka mentala

- Egonezina

- Buruhaustea


- Bakardadea

- Lasaitzeko nahia bilatzea

- Emozioak kudeatzea

- Ingurukoentzako (lagunak, familia...) laguntza bilatzea

- Hitz egiteko nahia



Kasu berezietan eman daiteke, aipatutako ezaugarrietatik bat ere ez izatea, baina horrek ez du esan nahi gure aplikazioaren laguntza lortuko ez dutenik. Lehen aipatu dugun bezala, lan pertsonalizatua izango dutelako, eta gure profesionalak kasu guztiak zehaztasunez landuko dituztelako.